



Sormen tailerorak

URRITIK EKAINERA



P.Kita Studio

pakitastudio.com • 943 94 77 58 • p.kitastudio@gmail.com

**Arte denda,
sorkuntza galeria,
serigrafia tailerra
eta estudio kreatiboa.**

NON?

Tailer hauek Pakita Studioan egingo dira. 2021 urtean ateak ireki dituen espazio kreatiboan. Estudioa Hernaniko alde zaharrean kokatzen da. Herriaren bihotzean.

Andrekale 41, Hernani.

NORK?

Pakita Estudioko gestio guztia Uxue Bereziartua Lonbidek egiten du. Urte osoan zehar emango diren tailerrak berak emango ditu.

Uxuek, ikus-entzunezko komunikazioan graduatu ondoren, Berexi Art sorkuntza proiektua sortu zuen. Proiektu honek ikusizko arte diziplina ezberdinak lantzen ditu: ilustrazioa, serigrafia, diseinu digitala, argazkilaritza, bideogintza eta muralgintza.





SORMEN TAILERRAK

I ETA II TALDEAK

Tailer honetan diziplina ezberdinak landuaz proiektu ezberdinak egitea da helburua. Sormena lantzeko proiektu ezberdinak proposatuko dira epe jakin batean burutu daitezzen. Parte hartzaileek nahi duten bezala bideratuko dituzte proiektuak, beraiei gehien interesatzen zaizkien bideak hartuz.

Lan ildoak:

- Ilustraziogintza
- Komikigintza
- Collagea
- Argazkilaritza

I TALDEA

7-12 urteko haurrak

40€/hilean, material guztia barne

Eguna taldearen arabera erabakiko da

II TALDEA

17 urtetik gorakoak

40€/hilean, material guztia barne

Eguna taldearen arabera erabakiko da



HAURRAK ETA AMAK

Saio hauetan hurrek eta amek elkarren arteko harremana beste forma batzuetan esperimintatzea bilatu nahi da. Sorkuntzaren bidetik harremanak sendotzea. Momentu intimoak sortu, kreatibitateari bidea eman eta goiz goxoak pasa.

Lan ildoak:

- Marrazketa
- Body painting
- Argazkilaritza
- Arte plastikoak

3-6 urteko haurrak eta hauen amak

30€/hilean, haurra eta ama,
material guztia barne
Hilean bi larunbat

HAURRAK ETA AMAK

INOIZ EZ DA BERANDU

Saio hauetan hirugarren adineko emakumeei eman nahi zaie lekua. Sorkuntzarako inoiz berandu ez delako, mundu honetan sartu nahi duten horiei zuzendua dago tailerra. Diziplina ezberdinak erabiliko dira sormena, proiektu ezberdinak proposatuz epe jakin batean burutu daitezzen. Parte hartzaileek gehien interesatzen zaizkien bideak hartuko dituzte proiektu hauek burutzeko.

Lan ildoak:

- Marrazketa
- Argazkilaritza
- Arte plastikoak

Hirugarren adineko emakumeak

35€/hilean, material guztia barne
Eguna taldearen arabera erabakiko da

INOIZ EZ DA BERANDU

IZEN EMATEA

AURRE-IZEN EMATEA EKAINAREN 20 ARTE

p.kitastudio@gmail.com
943 94 77 58

NOLA?

Esteka honetan klik eginda izen emate fitxara iritsiko zara. Hau bete behar duzu, besterik gabe. Ezingo bazenu, deitu telefonora eta bertatik egingo da gestioa.

Galdetegian tailerra zein egunetan izatea nahi duzun zehaztu behar duzu. Libre dituzun egun guztiak jarri, honen arabera izena eman duzuen guztien artean gehienei ondo datorkizuen eguna aukeratuko baitugu.

Aurre-izen ematea amaitzean, interesatuekin harremanetan jarriko gara taldeak osatzeko. Taldeetan tokia geratzen bada, irailean berriro behin betiko izen ematea irekiko dugu. Saioak urriko lehen astean hasiko dira.

MATERIALA

Tailerrak burutzeko erabili behar diren material guztiak estudioak berak jarriko ditu eta prezioaren barnean doaz.

Proiektu digitalen kasuan, batzuetan, ordenagailuaren beharra egongo da. Kasu hauetan parte hartzaileek posible badute beraiena ekartzea eskatuko da. Baina kasu puntualetan izango da hau. Ezingo balitz, bertako materialekin moldatuko da.

ORDAINKETA

Behin izen ematea amaituta, harremanetan jartzen garenean urriko lehen ordainketa egiteko irizpideak emango dizkizuegu. Ordainketa hilabeteka izango da, tailer bakoitzaren informazioan adierazten den prezioan.

Tailer batean parte hartu nahiko bazenu, baina adinagatik ezin baduzu izena eman, jarri gurekin harremanetan.

Jende gehiago interesatua egongo balitz talde bat sortuko genuke zuen beharretara egokituta.

ALDIZKAKO IKASTAROAK

Serigrafia saio pertsonalizatuak

Ilustraziogintza

Body painting

Bideogintza saioak

Sorkuntza digitaleko saioak

**INFORMAZIO
GUZTIA WEBEAN**

P.Kita Studio